



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko maiatzaren 26koa, Ordiziako Udalari gomendatzeko erreklamazio-egileari matrikula gisa kobratutako zenbatekoa itzul diezaiola.**

### Aurrekariak

1. Erreklamazio-egileak adierazi zuen ez dagoela ados Ordiziako Udalaren jardunarekin, toki erakunde horrek ez diolako itzuli udalerrri horretako Alotza haur eskolan aurrematrikula gisa ordaindutako zenbatekoa.

2010eko maiatzean, 7 hilabeteko haurdunaldia zuenean, haurtzaindegi horretan aurrematrikula egin zuen, itxaroten ari zen haurra 2011ko urtarriletik edo otsailetik aurrera haur eskolara bidali ahal izateko asmoarekin. Horretarako, 253,35 euro ordaindu zituen.

Urriaren hasieran, bere semeak bi hilabete zituenean, ikastetxera joan zen, eta azaldu zuen ez zeukala haurra haurtzaindegira eramateko premiarik, plaza beste batek hartu ahal zezan. Une horretan, ordaindutako dirua itzultzeko eskatu zuen. Halere, erantzun zioten aurrematrikuletako dirua ez dela itzultzen.

2. Kexaren tratamenduan aurrera egiteko, Ordiziako Udalari eskatu diogu interesdunak 2010eko ekainean ordaindutako zenbatekoaren kontzeptuari buruzko argipena egin dezala, ordainagirian gurasoen elkarte bakarrik agertu zelako titular gisa eta kontzeptu gisa erreklamazio-egilearen izena.
3. Ordiziako Udalak, bere erantzunean, azaldu zuen haur eskolako udal zerbitzua administrazio emakida baten bidez kudeatzen dela, eta gurasoek urtarilaren amaieran edo ekainaren hasieran ematen dutela izena, hurrengo ikasturterako. Une hartan matrikularen zenbatekoa ordaindu zen. Hileko ordainketa bat zen, pertsona honen kasuan 253,35 euro.





Era berean, hau adierazi zuen: *“...ese dinero, una vez realizada la matrícula, no se devuelve en ningún caso y que de ello se advierte verbalmente a los padres, cuando acuden a inscribir a los niños. Es decir se les informa de que la cantidad abonada, que da derecho a la reserva de plaza, no será devuelta en el caso de que el niño, por el motivo que sea, no comience el curso.”*

Azkenik hau gaineratu zuen: *“el importe de la mensualidad al inscribir a los niños se exige porque en la planificación del curso escolar, la Dirección de la Escuela ha de programar y organizar y contratar los recursos tanto humanos como materiales necesarios para prestar el servicio con lo que se generan unos compromisos y gastos para la misma”.*

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta Ordiziako Udalak igorritako informazioaren planteamendua aztertu ondoren, uste dugu ondoko hauek jakinarazi behar dizkizugula:

### Gogoetak

1. Kexaren planteamenduari heldu behar diogu, toki erakunde honek dauzkan eskurantzak erabiliz, udal haur eskolako barne araudiaren arabera eta, zehazkiago, haur eskolaren udal zerbitzua ematearen tasa arautzen duen udal ordenantzari jasotzen diren aurreikuspenen arabera.

Udal haur eskolako barne araudiak, 1996ko irailaren 26an behin betiko onetsi zenak, Ordizian haur eskolako udal zerbitzua emateko oinarrizko gaiak eta printzipioak arautzen ditu. Halere, arau honek ez du matrikula edo aurrematrikula baten ordainketa aztertzen.

Horri buruz, hauxe dakar arauak: *“Haur eskolako ikasturtea irailean hasten da eta uztailean bukatu, abuztuan oporrak izanik. Ikasturtea behar den denboraz planifikatzeko eta mota guztitako aurreikuspenak egiteko, aurrematrikulazio epea ezarriko da, martxoa maiatza inguruan, hurrengo ikasturtean hasteko moduan dauden haurren izenak hartzeko, hau da, irailean hasteko moduan daudenentzako, matrikula-epea prentsa bidez jakinaraziko da.” (3. artikulua, 1. paragrafoa)*





*“Haur eskolan zerbitzuak eskaintzeagatik sortutako kuota edo tarifak Udalak ezarriko ditu Osoko Bilkuran eta prezio publikoak direnez, Legean ezarritako arauen arabera aldagarriak izan daitezke.” (8. artikulua)*

*Eta “Dirua kobratzeko ezarritako dagoen sistema onartu eta eskura jarri Banketxe edo Aurrezki Kutxako kontu korrante edo libreta zenbakia.” (2.c artikulua)*

Era berean, haur eskolako udal zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantzak ere ez dauka inolako araurik matrikula edo aurrematrikula ordaintzeari buruz.

Zeharo garrantzitsua da hori, familiei haur eskolaren zerbitzuen prestazioa ordaintzea erreklamatzeko ahalmena zerga ordenantzak ematen diolako zentroari. Tarifa hauek ordenantzan ezarritakoaren arabera soilik erreklamatu ahal dira.

Zerga ordenantzak zehazten duenez, bere helburua haur eskolako udal zerbitzua erabiltzeagatiko tasa arautzea da. Familiek beren diru-sarreraren arabera ordaindu behar dituzten hileko tarifak finkatzen ditu, famili unitatea nola antolatzen den azaltzen du eta, zehazki, tasen ordainketari dagokionez hau adierazten du:

*“Zerbitzua erabiltzen den hasten den une berean hasiko da Ordenantza honetan araututako tasak ordaintzeko betebeharra.*

*Behin zerbitzuaren erabiltzaileak matrikulatu ondoren, dagokion sei hilabetekoari dagozkien tarifak ordaindu beharko ditu, epe hori bukatu aurretik uzten badute ere.*

*Sei hilabeteko horrek abuztua hartzen ez badu, hilabete horri dagokion proportzioa ere ordaindu beharko dute.” (7. artikulua)*

2. Administrazio zuzenbidean legezkotasun positiboaren printzipioa bete behar da. Printzipio hau bereziki oinarritzkoa da zergen gainan.

Horrek esan nahi du administrazio publikoen egintza eta xedapen guztiek, denek salbuespenik gabe, alde zuzeneko lege batean babes egokia eduki behar dutela, egintza eta xedapen horiek emateko botere nahikoa ematen edo



aitortzen diena, administrazioaren jarduketa oro legearen eta zuzenbidearen mende egon behar dela, eta ez dagoela salbuetsitako espaziorik zeinetan administrazioak botere ajuridiko eta libre gisa jardun ahal duen. Hala adierazten du Espainiar Konstituzioaren 103.1 artikulua: *“Herri administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak eta (...) dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.”*

Ez da administrazio jarduketarik horri ihes egin ahal dionik. Horregatik, arauaren berriazko gaikuntza egon behar da, familiei matrikularen edo aurrematrikularen zenbatekoa erreklamatu ahal izateko. Arau honek berezitasun bat dauka; izan ere Ordiziako Udalak erabaki du arau hau ematea bere buruari. Aitzitik, esan dugunez, zerga ordenantzak ez du matrikularen edo aurrematrikularen kontzeptua finkatzen, ezta haren zenbatekoa, sortzapena eta abar.

3. Gauzak horrela, eta berriazko tasa bat finkatzeak izan dezakeen zilegitasuna gorabehera, beraren bidez kudeaketa gastuak edo plaza erreserbatzeko gastuak ordaintzeko (zentroak gastu horiek baitauzka), ondorioztatu behar dugu, zerga ordenantzaren gaur egungo idazkuntza ikusita, ezin daitekeela tasa kobratu. Horregatik, ezin da zenbateko hori atxiki; izan ere, toki erakunde horrek ez du zerga-egitate egokia sortu, zentroa ordainketa hori exijitzeko gaitzen duena eta, horrenbestez, zenbatekoa ez itzultzeko gaitzen duena, zentroari egotzi ezin zaizkion kausengatik zerbitzua eman ezin denean.

Matrikulagatik ordaindutako zenbatekoa ez dela inola ere itzuliko ahoz esan arren, horrek ez du azaldutakoa aldatzen. Horri buruz, esan behar dugu, gaur egun, ez dagoela araudirik haur eskolako udal zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen zerga ordenantzan familiei ordainketa erreklamatu ahal izateko.

Informazio oso garrantzitsua da familientzat, eta ez litzateke geratu behar bere edukia ahozko transmisio hutsean, ezta haur eskolan matrikulatzeagatik tarifa bat beren-beregi sortzen bada ere.

Azken kasu horretan ere, matrikula gisa ordaindutako dirua itzuli ezina dela azaltzen duen informazioa interesdunen esku dagoela frogatu beharko litzateke. Horregatik, zerga ordenantzan ez ezik familiei ikastetxeari buruz eta zerbitzua emateko zerbitzuei buruz eskaintzen zaien informazio orokorrean agertu beharko litzateke.





Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ondokoa egiten dugu:

#### **14/2011 GOMENDIOA, maiatzaren 26koa, Ordiziako Udalarari**

Erreklamazio-egileari matrikula gisa ordaindu duen zenbatekoa itzultzea. Izan ere, zerga-egitate hori ez du babesten haur eskolako udal zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen zerga ordenantzak, Ordiziako Udalak onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010. urtean argitaratua.

Kudeaketa gastuak eta plaza erreserbatzeko gastuak estaltzeko asmoz matrikula egiteagatik tarifa bat ezartzea bidezkoztat jotzen baldin bada, zerga ordenantzaren gaur egungo idazkuntza aldatzea, jarduketa horrek legezko babesa emateko.

Haur eskolan matrikularen zerga-egitatea ezartzea erabakiz gero, familiei ematen zaien informazio orokorrean komenigarria litzateke azaltzea kontzeptu horregatik ordaintzen diren diru-zenbatekoak itzuli ezinak direla.

